



BURUKO ZORRIEI BURUZKO INFORMAZIOA ETA URREZKO ARAU BAT

Dokumentu hau familientzako eta profesional-talde guztientzako da (mediku, erizain, irakasle eta farmazialari).

- Buruan zorririk baduzun jakiteko, neurririk egokiena orrazia pasatzea da. Horretarako, hortz estuko orrazi bat behar duzu, eta argi ona eta orrazi arrunt bat ere bai (ikus atzean zehaztasunak).
- **Familiak berak dauka etxekoen buruetan zorririk dagoen jakiteko, eta tratamendua egin eta prebenitzeko erantzukizuna.** Garrantzitsua da familientzat behar adinako informazioa eta laguntza jasotzea profesionalen aldetik.
- Tratamendua zorriak bizirik badaude bakarrik jarriko da, mugitzen ari badira, bartzak kontutan hartu gabe.
- Zer tratamendu egin jakiteko, eskatu iezaiozu aholku osasun-profesional bati (atzean dator zehaztuta).
- Zorriak edukitzea ez da osasun-arazo larria gure herrian. Osasunerako dituen ondorio kaltegarriak, batez ere, benetakoak baino puztutako usteak besterik ez dira. Herritar nahiz profesionalak horien aurrean dugun erreakzio neurrigabeak prebalentzia benetan dena baino handiagoz jotzera eramaten gaitu, eta familien antsietatea areagotzera. Ondorioz, ez beharrezko, ez egoki diren egintzak egiten dira; alegia, tratamenduak gaizki eta gehiegitan jartzen dira.
- Oso ohikoa da oportetan nahiz eskola-garaian gertatzea infekzioa. Gurasoak gehiago kezkatzen dira zorriengatik haurrak eskolara itzultzen direnean, uste dutelako zorriak han egoten direla. Buruko zorrien infekzioak, askotan, familiako eta gertuko lagunengandik jasotzen dira, etxean bertan edo komunitatean; ez eskolan.
- Ez da beharrezkoa, ezta eraginkorra ere, gutunak edota oharrak bidaltzea ikasle guztiei zorriak atzematen direnean; hala eginez gero, agerraldi bat dela ematen du, eta gehienetan ez da hala izaten. Informazioa **aldi-aldi** eman behar litzateke, **prebentzio modura**, eta ziurtatu, familiako kide guztiek dakitela orrazia zorrotz pasatu behar dela buruan zorririk dagoen atzemateko.

- Zorriak dauzkaten haurrak ez dira eskolatik baztertu behar.

URREZKO ARAUA

Tratamendu kimiko bat jarri aurretik, egiaztatu egin behar dugu infekzioa dagoela, zorriak bizirik, mugitzen, ikusita. Etxekoren batean buruan zorriak aurkitu badira, etxeko guztiak aztertzea komeni da, eta, zorriak dituela egiaztatuz gero, tratamendua jartzea, dauzkaten haiei.

Ez erabili sekula zorrien aurkako loziorik, tratamenduak "badaezpada" egiteko.

NOLA ATZEMAN ZORRIAK?

Ilea ondo garbitu eta toallarekin lehortu. Ilea heze egon behar du. Argi ona eduki behar duzu, eta argi naturala bada, hobe. Ilea orrazi arrunt batekin orraztu lehenik, eta gero, orrazi hortzestuekin. Buruaren gaineko aldetik hasi, eta buru-hondoa ukituz joan, ahalik eta gehien, orrazia ile-puntetara eramanez. Kontuz-kontuz begiratu orrazi-hortzei, argi onarekin. Behin eta berriro egin, buruaren gaineko aldetik ile-puntetaraino, norabide guztietara, buruaren alde guztietan arituz. Ondo egiteko, 10-15 minutu beharko dituzu. Zorriak badaude, bat edo bat baino gehiago aurkituko dituzu orraziaren hortzetan.

Zorriak intsektu txiki batzuk dira, beti oinak mugitzen edukitzen dituztenak. Askotan, ez dira orratz-burua baino handiagoak izaten, baina sesamo-hazia adinakoak izatera irits daitezke. Orrazia urarekin garbitu, iturriaren azpian jarrita. Atzazaletako eskuila ere erabil dezakegu horretarako. Zerbait aurkitzen baduzu eta ez badakizu zer den, itsats ezazu orri batean, zinta itsaskor garden batekin, eta erakuts iezaiozu zure erizain edo medikuari. Zorriak ez diren beste hainbat gauza ere egon daiteke ilean. Laguntza edo aholkurik behar baduzu, galde iezaiozu zeure farmazialari, erizain edo medikuari.

Ez egin tratamendurik, baldin eta ez badakizu ziur zorriak daudela, bizirik, mugitzen.

Hainbat egoeretarako tratamenduak

Adina Aukerako tratamendua

Haurrak < 6 hilabete	Zorri-kentze mekanikoa	Be
6 hilabetetik eta 2 urtera arteko haurrak	Zorri-kentze mekanikoa	Sil
Haurrak >2 urte eta helduak	Silikonak	Pe Ma
Hurdunaldia eta edoskitzaroa *	Zorri-kentze mekanikoa edo silikonak	Ma
Asmadunak*	Zorri-kentze mekanikoa edo silikonak	



* Saihestu soluzio alkoholdunak

Intsektizida eta silikonak erabiltzea zorrien tratamendurako

1. Ilea lehorrean eman, ile guztia ondo-ondo estaltzen delarik zuztarretik puntaraino.
2. Ilea bere kasa lehortzen utzi, gomendatu adina denboran.
 - Silikonak (8 ordu).
 - Piretrinak (eskuorrian adirazi adina denbora)
 - Malationa (12 ordu)
3. Xanpu arruntarekin garbitu ilea (tratamendukoa ez dena)
4. Berriro egin, 7 egunera.
5. Orrazia pasatu zorriak bilatzeko, tratamendua amaitu eta 2 edo 3 egunera.
6. Zorri heldurik aurkitzen ez bada, bartz-orraziarekin saiatu, tratamendua egin eta 8-10 egunera.
Tratamendu ondorengo bi saiakeratan zorririk aurkitzen ez bada, tratamendua arrakastatsua izan den seinale.

Gida hau Gipuzkoako hainbat profesionalen artean egin dugu; irakasle eta osasun-profesionalak (farmazialari, erizain eta mediku) eta Epidemiologia unitateko teknikariak elkartu gara.
Donostia-San Sebastián 1/03/2016

